



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?”

2023ko abuztuaren 27a
Urteko 21. igandea (A)

Mateo 16, 13-20.

Feliperen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien Jesusek bere ikasleei: Gizonaren Semea nor dela dio jendeak? Haiek erantzun: Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat.

Jesusek galdetu zien: Eta zuek, nor naizela diozue?

Simon Pedrok erantzun: Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea.

Orduan, Jesusek esan zion: Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezurmamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta nik hau diotsut: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; eta herioren indarrak ere ez du menperatuko. Jainkoaren erreinuko giltzak emango dizkizut; zuk mundu honetan lotua zeruan ere loturik geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua zeruan ere askaturik geldituko da.

Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

Jesusek galdetu zien: Eta zuek, nor naizela diozue?

BIZITZAZ AITORTU

José Antonio Pagola

Nor naizela diozue? Ebanjelari sinoptiko guztiek dakarte galdera hau, Jesusek Filipoko Zesarean bere ikasleei egin ziena. Lehen kristautentzat joan-etorri handiko gauza zen behin eta berriz gogoratzea zeini ari ziren jarraitzen, nola ari ziren parte hartzen haren egitasmoan eta norengatik ari ziren bizitza arriskatzen.

Galdera horri gaur egun erantzun nahi diogunean, mendetan barna kristauok sortu izan ditugun formulak erabiltzeko joera dugu: gizon egin den Jainkoaren Semea da Jesus, munduaren Salbatzailea da, gizadiaren Eroslea da... Aski ote da hitz horiek erabiltzea Jesusen jarraitzaile «bihur gaitezen»?

Tamalez, haurtzaroan ikasitako formula huts gertatu ohi dira sarritan, era mekanikoan onartuak, arinki errepikatuak eta bizipen baino gehiago baieztapen huts.

Ohituraz aitortzen dugu Jesus, debozioz edo esanekotasunez, baina haren biziaren jatortasunaz jabetu gabe bizi ohi gara, haren deiaren berritasuna entzun gabe, haren maitasun misterioitsuak erakar gaitzan utzi gabe, haren askatasunak kutsa gaitzan utzi gabe, haren ibilbideari jarraitzen ahalegindu gabe.

«Jainko» bezala adoraten dugu, baina ez da gure bizitzaren erdigune. «Jaun» dela aitortzen dugu, baina haren egitasmoari bizkarra ematen diogu, zer zen eta zer nahi zuen batere ondo jakin gabe. «Maisu» esaten diogu, baina haren bizitzaren motibazio zen hura geure motibazio bihurtu gabe. Erlijio bateko kide bezala bizi gara, baina ez gara Jesusen ikasle.

Paradoxikoki, geure doktrina-formulen «ortodoxian» segurtasuna aurki genezake, baina ez da gertatzen Jesusekin egindako topaketa bizi. Badira guztiz «ortodoxoak» diren kristauak, senezko erlijiotasuna bizi dutenak, baina ez dute sumatu esperientziaz Jesus janari dela. Fedearen «jabe» direla uste dute; are, harro mintzo dira beren ortodoxiaz, baina ez dute ezagutzen Kristoren Espirituaren dinamismoa.

Ez gaitzen engaina. Jesusen aurrez aurre jarri beharra du guretako bakoitzak, haren begiradapean jarri beharra du eta nork bere izatearen barru-barrutik haren hitz hauek entzun beharra: nor naiz ni zuentzat benetan? Galdera honi bizitzaz erantzuten zaio hitz distiratsuz baino gehiago.